

BETERRIKO ALDIZKARIA

AIURRI

1995ko apirila. 13. zenbakia. Doan banatzen da.



Foto Echarrri



•ORDUBETEAN ERREBELATUA •ARGAZKI ESTUDIOA •LEHEN JAUNARTZEAK
•EZKONTZA ERREPORTAIK •MARKOZTAKETA •ANPLIAZIOAK BEREZIKI

Elizondo Plaza, 2 atzealdea - ☎ 59 41 48 - ANDOAIN

Juan de Urbieta, 8 - ☎ 55 29 39 - HERNANI Kale Nagusia, 17 - ☎ 36 14 84 - LASARTE

SANTA KRUTZ

JAI ZORIONTSUAK

OPA DIZKIZUE...

ALDAMA - TAPIA

ASESORIA
GESTORIA
ASEGURUAK

KALITATEA ETA
SEGURTASUNA !!

KALE BERRIA 22
TELEFONOA 59 44 76 - 30 01 67 20140 ANDOAIN

LANBIDE EZBERDINEN ARTEKO KOORDINAKETAK

GASA ETA BEROGINTZA

- ITURGINTZA
- GASA
- BEROGAILUAK
- ELEKTRIZITATEA
- IGELTSARITZA

KALE NAGUSIA, 59 - ☎ 59 38 44 ANDOAIN



KALE BERRIA, 9 ANDOAIN TELF. 59 35 49

MENDIKO ETA ERREPIDEKO BIZIKLETAK

KURPIL *libero*
ARMENDIA

ASTORE

adidas

DENDAKO TELF. 59 43 41
TAILERREKO TELF. 59 37 99

KALE BERRIA, 22
20140 ANDOAIN

TABERNA

Olajauña

SALMENTA.

ERREALAREN PARTIDUETARAKO
SARRERAK.

ANOETAKO KONTZERTUETARAKO
SARRERAK

Zumea, 4 - Telf.: 30 02 29
ANDOAIN



Zumea, 18 ANDOAIN

TXITIBAR TABERNA

A N D O A I N

mirikost

LIBURUDENDA PAPERDENDA

JAUNARTZERAKO
OPARIRIK EGOKIENAK

KALE NAGUSIA, 20 - ☎ 59 16 57
ANDOAIN



Ondo pasa jaietan

Nagusia 20 ANDOAIN

LEITZARAN FINKAK

INMOBILIARIA

ONDO IGARO SANTA
KRUTZ JAIAK

KALE NAGUSIA, 20 Behea -Tel - Fax 59 18 56
ANDOAIN

Aurkibidea

1. **AURKIBIDEA. ZE BERRI?**
Billabonako Udaleko euskara dinamizatzailerak.
2. **INKESTA.**
Eta zuk, ba al dakizu esaera zaharrik?
3. **ADUNA.**
Udal hauteskundeak
- 4-5. **ANDOAIN.**
Santa Krutz martxa kaleetan.
Buruntzaldeko kirol zerbitzua.
6. **ASTEASU.**
Santa Krutz jaiak, berreskuratutako jaiak.
7. **BILLABONA-AMASA.**
EAren Udal hauteskundeetarako zerrenda.
8. **ZIZURKIL.**
Kultur asanblada baten beharrea.
- 9-10. **ERREPORTAIA.**
Andoaingo irratizaleak: 10 urteko historia.
11. **BASERRIA.**
Bretxa azokarako joan-etorria.
- 12-13. **KIROLA.**
Gizon-emakume hegalaria.
14. **SUKALDEA. LEHIAKETA.**
15. **ZURE HIZPIDEA. HEMEROTEKA,**
16. **AGENDA.**

Argitaratzailea: Manuel Larramendi Kultur Bazkuna. **Egoitza orokorra:** Dr. Huizi kalea 15, 1-esk. 20140 ANDOAIN (Gipuzkoa) ☎ 30 07 32 Fax: 30 07 31
Babesleak: Aduna, Andoain, Asteasu, Billabona, Larraul eta Zizurkilgo Udalak. **Zuzendaria:** Antxiñe Mendizabal. **Maketatzailea:** Iñaki Garmendia.
Erredakzioa: Antxiñe Mendizabal, Amagoia Mujika, Ainhoa Oartzabal **Argazkiak:** Manu Mujika, Truchuelo.
Komikia: Beñat Azurmendi. **Publizitate arduraduna:** Mailu Ibarbia. **Banaketa arduraduna:** Iñosken Mujika.
Administratzaile-eragilea: Kepa Sarasola.
Inprimategia: Gertu Kopp. E. (Zubillaga, Oñati).
Filmaketa: VideoCys, Donostia. **Lege-gordailua:** SS-202/94 **ISSN:** 1134-0614 **Tirada:** 3.500 ale.

Ze berri?

EUSKARA MERKATAL MUNDURA



MAITE ARREGI

Billabonako Udaleko euskara dinamizatzailerak

- **Zein da egitasmoaren helburua?**
- Merkataritza establezimenduetako euskararen egoera hobetu nahi izan dugu. Ez dugu egoeraren azterketa eta diagnosis egin bakarrik, etorkizunean jarraitzeko oinarriak eta lan ardatzak ere finkatu ditugu, alegia, autoimplikazioa, mailaketa eta jarraipena. Hori guztia bitzarmen batean gauzatu da.
- **Zenbat lagun bildu dira hitzarmenera?**
- Herrian 116 establezimendu daude, eta horietatik 49k nolabaiteko konpromezua hartu dute. Hitzarmenaren bitartez merkataritza bakoitza bizkuntz-normalizazio prozesuan autoimplikatu egiten da, bere egoera soziolinguistikoaren arabera konpromezu mailakatuak onartuz.
- **Zer nolako harrera jaso duzue?**
- Oso harrera ona izan du proiektuak oro bar, eta merkatariek dituzten mugak kontuan izanik, euskararen sustapenaren aldeko borondatea somatzen dela esan dezakegu.
- **Zertan datza egitasmoaren arrakasta?**
- Jarraipenean eta motibazioan, zalantzarik gabe.
- **Ikastaroren batzuk ere antolatu dituzue.**
- Bai, jende gehiagok izena eman duen arren, zazpi lagunek osatutako merkatal ikastaro bat bukatu berri dugu. Oinarritzko alfabetatzea izan da, baina bere merkatal esparrua landuz.
- **Zergatik aukeratu duzue egitasmo hau?**
- Euskararen normalizazioan merkataritzak ezinbesteko garrantzia dauka. Eta merkatariek oso ongi ulertu dute hori.

OHARRA: Bazkun argitaratzaileak ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien gaineko inolako erantzukizunik.



Aldizkari honek Eusko Jurlaritzako Kulturaz salmeren Laguntza jasotzen du



Aldizkari honek Gipuzkoako Foru Aldundiko Kultura Departamentuaren laguntza jasotzen du

Eta zuk, ba al dakizu esaera zaharrik?

“Pobrea ez da lapurren beldur”, “Prailearen dozena, hamahiru”, “Gaueko lana, goizeko lotsa”, “Alferrak esana: nik izerdia ohean bakarrik”, “Ardoak mugituko ez dunik ez dek”, “Alperraren atxurra, erdoiak jan” eta beste hamaika esaera zahar gehitzerik ere izango genuke euskal esaera zaharren bildumaren batean begiratzuz gero. Izan ere ugari dira usadioak

eta tradizioak bildu dituen errefrauek, atsotitzak eta esaera zaharrak. Gure artean ezagutzen eta erabiltzen ote ditugun jakin nahi izan dugu ordea. Bada horretan ere gazte eta zaharren artean aldea: garai batean kalean edo etxean ikasten zena, gaur eskolan irakatsi ohi da. Erabili berriz, ikus dezagun zenbateraino erabiltzen diren...



Benita Etxeberria. **Jubilatua. Andoain.**

Jakin badakit, baina egia esan ez zait momentu honetan batere burura etortzen. Erabili ere, sarritan erabiltzen ditut. Etxean ama zenari ikasitakoak dira gehienak, hark asko zituen. (Guk ere susmatzen genuen Benitak esaera bat


baino gehiago jakingo zituela eta pixka batean etxerako bi-dean lagunduz etorri zaizkio burura): “Ama Birjiña martxokoz kuku, San Pedroz mutu”, “Dagoena buru handi, dabilena sabel handi”.



Jasone Arrospide. **Ikaslea. Aduna.**

Lehenago, eskolan ikasten genituen esaera zaharrak, baina orain ez. «Esaera zaharrak» liburuan irakurritakoa botako dizuet (esan digu Jasonek, lau neskatiletatik animatu den bakarrik): «Gezurra esan nun Getarin eta ni baino lehenago zan atarin».


Ez dakit bere esanahia eta horregatik ez dut normalean hitz egitean esaera zaharrik erabiltzen.



Nadia Lizarraga. **Ikaslea. Zizurkil.**

Bapatean honela, «A ze paraa karakola eta barea» eta «Banua eta baltiz elkarren onduan dabiliz» esaretaz oroitzen naiz (ezustean harripatu baitugu). Ikastolan makina bat ikasi genituen baina gaur egun ez

naiz askotaz gogoratzen. Gainera ez ditut erabiltzen eguneroko solasaldietan.



Lazaro Goenaga. **Baserritarra. Asteasu.**

Jai giroan botatzen dira esaera zaharrak, jendea animatuta dagoenean. Eguneroko hizketaldietan ez dira erabiltzen, oso gutxitan. «Seguran eta Zegaman egunez ikusi eta gaeuz eraman» dirudenez, lapur ospea dute bertakoek (esan digu

Joxe Marik, asteasuar artean zebilen tolosarrak). «Itsuen herrian tuertua alkate», hori ere esaera polita da! (gaineratu digu Patxi lagunak atzean ez gelditzearren).



Itziar Urdapilleta. **Ikaslea. Andoain.**

“Urrutiko intxaurrak hamalau, gerturatu eta lau”, “A ze paraa, karakola eta barea”, “Zozoak beleari ipurbeltz”. (Elena, Aintzane eta Kristina bere lagunek lagundu diote eskolan ikasitako esaeren errapasoa

egiten. Makina bat ikasi omen dituzte klasean, baina ezin denak gogon izan“).



Arantxa Irazustabarrena. **Etxeko laguntzailea.** **Billabona.**

Edukin handikoak dira esaera zaharrak eta komentarioren batean zerbait azpimarratzeko erabiltzen ditut. «Zozoak beleari ipurbeltz» esaerak, besteen akatsak ikusten ditugula baina gureak ikustea kostatzen da egiten zaigula adierazten du.

OLASAGASTI
LORADENDA

Nagusia, 44 - ☎ 30 06 20
20140 ANDOAIN

AMATXO GUZTIEI
ZORIONAK!!!

L O R A K
HUNIZ

Matia, 44 - ☎ 31 06 41
DONOSTIA



Aduna hauteskundeetarako prest

“Adunako Elkarte Herritarrak” aurkeztu du hauteskundeetarako hautagaien zerrenda

“Aduna herri dinamiko, erakargarri eta bizileku txukun bat”, hitz horiek laburbilduko lituzke Udalak datozen urteetarako dituen asmoak. Oraingoan ere kandidatura independentea aurkeztu dute “Adunako Elkarte Herritarra” izenpean. Ohitura duten bezala, herritarrak bildu eta prest daudenen artean, hautagaien zerrenda osatu dute.

Hautagaien zerrenda osaturik dago jadanik. Jabier Zabala, Pello Ezeiza, Mikel Sarasola, Patxi Ormaetxea, Hilario Agirre, Miguel Elola eta Arantxa Zabala dira hautagaiak.

Adunako herriak dituen beharrei aurre egitea du helburu Adunako Elkarte Herritarrak. Egitarauaren ardatz nagusiak aurreratu dizkigute hautagaiak: lehenengoz ete behin orain artekoarekin jarraitu eta sortzen diren beharrei aurre egin. Horrez gain, herria bizitu, eta lemak dioen bezala, Aduna erakargarri izan dadin bitartekoak jarriko dituzte. Etxebizitzaren aldeko ekintzekin jarraituko dute. Era berean, hirigintzaren garapena aurrera eramanez nahi dute, herriko gunea txukuntzen jarraitu, bide zaharrak berri eta abar.

Kultur Etxea

Kulturak leku garrantzitsua izatea nahi dute. Horretarako, Kultur Etxea martxan jarriko dute, eta momentuz kultur ekipamendu ugari ez izan

arren, horiek gehitzea eta berriak sortzea da asmoa, kultur ekintzek babesa izango dutelarik.

Euskara bere lekuan jartzea da beste eginbeharretako bat. Udalak gai guztiak euskara hutsean tratatzen baditu ere, idatziekin ez da berdin gertatzen. Maiz, zailtasunak daude, administrazioko idatziekin. Arazo hori gainditzeko, neurriak hartuko dituzte.

Abiadura Handiko Trenaren inguruan ere, aurkako postura behar den

lekuan agertzen, egoera berdinean dauden herriekin proposamenak aurrera eramaten eta berorien esku dauden neurriak hartzen saiatuko dira, trenak herria zati ez dezan.

Ingurugiroa, zerbitzuen hobekuntza, zerbitzu hobea eskaintzearen Udalaren administrazioaren egokitzea eta herri eskolaren babesa dira, besteak beste, egitaraua osatzen duten asmo eta eginbeharrak.

Adunako udaletxeko tabernajaketxea eta almazena enkantean

Udalaren taberna-jaketxearen eta almazenaren akurapeana, 1995eko uztailaren 1etik 2.000 urteko ekainaren 30ra bitartekoa, lehiaketan ateratzea arautuko duen baldintza zerrenda onartzeko erabakia hartu du Udalak. Zerrenda hori ikusi nahi duenak Udal bulegoetan izango du eta interesatuek aztertu, eta kasu bada, aldaketak eska ditzake. Ondoren, behin-betiko onartuko dira oinarriak.

Oinarriko prezioa hileko 40.000 pezetakoa izango da, dagokion B.E.Za gehituz. Ez da onartuko kopuru hori berdintzen edo gainditzeko ez duen proposamenik. Interesaturik daudenek beraien proposamenak sobre itxian egingo dituzte, baldintza zerrendan eskatutako dokumentazioarekin eta proposamen ereduarekin batera. Aurkezteko epea Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean iragarki hau argitaratu eta hogeie egunetara amaituko da. Eskaintzak, Udal bulegoetan aurkeztuko dira.



HOL - ATZ

VACSOL - WR TRATAMENDUA EGURRARENTZAT



OHOL ETA ALTZARIEN TRATAMENDUA

PITZADURA, PIPI eta HEZETASUNAREN
AURKAKO TRATAMENDU FIDAGARRIA

Agaitz auzoa, z/g.
☎ 69 30 63 - 69 07 34
BILLABONA



Gemma

Loradenda

LORATEGIEN MANTENUA
KANPO NAHIZ
BARRUKO LANDAREAK

Kale Nagusia, 5 - ☎ 69 28 98 - BILLABONA



Santa Krutz martxa kaleetan

200 andoaindarrek baino gehiagok hartzen dute parte hiru danborradetan


Aurki entzungo dira Santa Krutz martxaren danbor hotsak herriko kaleetan. Zumeatarrak izango dira lehenak: ostiralean bertan irtengo dira; Santa Krutz peñak jarraituko dio bigarren, larunbatean; eta Amnistiaren Aldeko Batzordeak astelehenean eskaino du berea.

Gurutze Santu elkarteak 1954ean egin zuen bere lehenengo danborrada, 1982an Zumeatarrak eta 1990ean AABk.

Uteak ez dira alferrik igarotzen eta bien bitartean aldaketak eta gora-beherak izan dira: zumeatarraren esanetan emakumeek beren eskubideak aldarrikatzeari ekin zieten urteetan hasi ziren eurak danborra jotzen, eta ondorioz, sekulako iskanbilak jasatea tokatu zitzairen emakumeek mantala sukaldean egoteko ezezik, barrilak jotzeko ere erabili nahi zutela bururatu zitzaizenean. Gaur egun Santa Krutz elizako Gurutzeko Kristoak danbor hotsak asaldatu gabe entzuten baditu ere, danborroek sarrera galerazita izan zuten

garai batean. Gaur egun Inaki Larrea erretorea bera da peñatarrekin eliza barruan danborra jotzen duena.

Lehen danborreroak edaldekoko gizonak ziren gehienbat, gaur egun jende gaztearena da partehartzerik handiena. Musika piezak guztienak dira antzekoak: Sarriegiren pieza klasikoek osatzen dute orobat erreperorioa, guztiak moldatu dute, hala ere, euren gustoko beste piezaren bat edo beste. Dena dela, batzuek afalostean, afaldu aurretik besteek, guztiak ahalegintzen dira danborradak ahalik eta txukunen moldatzen.



Santa Krutz Peña

Elkartekoez danborradaren "arima" izan zen Manuel Zaratrain aipatu gabe ez dute utzi nahi izan. Bera arduratu zen garai batean Donostiatik danborrak, barrilak eta jantziak ekartzeaz. "Patsi Aundi" herriz, danborradaren lehenengo zuzendaria izandakoa da 1977 urtera arte, Juan Manuel Barcinak jarraitu dio gaur arte. 1964. urtean utzi omen zieten emakumezkoek danborradan parte hartzen. Berehala damutu omen ziren ordea, eta gaur egun kantinera bezala ere ez dituzte hartzen. Garai batean guztiak izan behar zuten elkarrekide, gaur egun edonork dauzka atak irekita.



Zumeatarrak

Mugimendu feminista pil-pilean zegoela tokatu omen zitzairen kalera irtetzea, eta izan zituzten istiluen ondoren, gaur egun, ez asko baina, emakumezkoek ere parte hartzen dute euren danborradan, eta baita kantinera gisa. Jesus Mari Dominguez eta Goya izan ziren beren lehenengo zuzendariak eta gaur egun Jon Huizik eta Juan Francisco Revillak hartu diete erreleboa. 1970. urtean sortu zuten zumeatarrak elkarte. Aurten 25. urteurrena dela eta, izango da ospakizun bat baino gehiago ekaina aldean.



Amnistiaren Aldeko Batzordea

Gazteenak izan arren, lehenengo egunetik saiatu dira desfilea txukun eta serio burutzen. Miren Begoña Mujika izan da hasieratik barrileroen zuzendaria eta "Rakox" danborreroena. Amnistiaren Aldeko Batzordearen zapia jantzia eta ikurra eskuan, euskal preso eta errefuxiatuak gogoratu nahi izaten dituzte, eta sei preso andoaindarrak bereziki. Danborrada ordea, ez da egiten duten ekintza bakarra eta jaiak irau bitartean buru-belarri aritzen dira batean antolatzen, bestean ospatzen, alegia, jaiak ahalik eta ondoen pasatzen.



Buruntzaldeko kirol zerbitzu mankomunatua

Bost Udalek baliabideak mankomunatzen jarraitzeko hitzarmena sinatu dute

Buruntzaldeko kirol zerbitzu mankomunatuak beste aurrerapauso bat eman du bost herrietako kirolzaleei zerbitzu hobea eskaintzeko asmotan. Hasieran kiroldegiak eta bestelako instalakuntzak mankomunatu zituzten, ikastaroak ondoren, eta gaur egun kirol medikuntza zerbitzu berria ere izango dute herritarrek. Bost herrietako Udalek hitzarmen baten bitartez gauzatu dute akordioa. Guztira kiroldegietako kide direnak 20.000 laguntara iristen dira gutxi gorabehera, eta teknikarien esanetan Euskadiko kirol instalakuntza hobere-takoak dira Buruntzaldekoak bertako biztanle kopurua kontuan hartuz.



Bost herrietako ordezkariak

Andoain, Hernani, Lasarte-Oria, Urnieta eta Usurbil herriek osatzen dute Buruntzaldeko kirol zerbitzu mankomunatua. Eskolarteko olinpiadak antolatzen hasi zirenean izan zituzten Udalek lehenengo harremanak. Eta orduan pentsatu zuten Udal mailako kirol zerbitzuan ere antzeko pausoak eman zitezkeela. Azken helburua baliabide ekonomikoak aurrezte eta gero eta zerbitzu hobea eskaintzea da.

Gaur egun ikastaro amankomunak eskaintzen dituzte kiroldegiek, alde batetik herri bakar batean ikastaroa egiteko nahikoa jendek izena eman ohi ez duelako, eta bestetik, kiroldegi batzuek besteek baino azpiegitura hobea eskaintzen dutelako. Gainera, herri bateko kiroldegia itxita dagoenean zaletuak beste herri batera joan daitezke kirola egitera. Administrazioari dagokionez ere kudeaketa mankomunatzeko pausoak ematen ari dira. Eta azkenik, eskaini herri duten kirol mendikuntza zerbitzua aipatu behar da.

Kirol medikuntza

Zerbitzua Hernani eta Lasarte-Oriako kiroldegietan eskainiko da asteazken eta ostegunetan 16.00-20.30 bitartean. Prebentzioari zuzendutako kirol mediku miaketek eman nahi zaie lehenetasuna, alegia, osasun egoera eta kualitate fisikoen balorazioa egingo dute iharduera kirol-fisikoa kontrolatu eta zuzentzeko. Dena den, ohizko lesioen diagnostikoak eta trataerak ere egingo zaizkie federatuei nahiz ez federatuei. Azken finean kirolari profesionalari baino gehiago, zaletuari begira dago zerbitzua, beti ere bere iharduera kontrolatuz, hobetzeko asmotan.

EAJ-PNVren hautagaiak

Garbiñe Egibar Artola alkategai

Egun Gipuzkoako Diputazioko Kultura saileko zuzendari orokorra den Garbiñe Egibar da EAJ-PNVren zerrendaburua. Honako andoaindar hauek osatzen dute gainerakoan zerrenda: Maxen Zinkunegi Iraola, Mikel Arregi Aranburu, Eugenio Ariztimuño Amas, Pili Berasain Biurarena, Antonio Amondarain Aizpurua, Ramon Jauregi Elizondo, Roberto Galarraga Astibia, Patxi Irigoras Etxebeste, Arantxa Arberas Ezama, Antonio Guedejo Perez, Vitoriano Ansa Goenaga, Andoni Elozegi Ezkurdia, Juana Ikutza Arias, Iñaki Irulegi Unzalu, Eneko Urdangarin Eizaguirre eta Iñaki Artola Ugalde. Aurkezpenean adierazi zuten.

esperientziadun jende gazteaz osatutako zerrenda da.

GBBko buru den Joseba Egibar eta EuEko idazkari nagusi den Xabier Gurrutxaga egon ziren Urigain Kultur Etxean aurkezpen egunean. Asmoen artean alderdiak gehiago botoak eskuratu, alkatetza lortu eta herriko arazo larrienei irtenbidea eman-go dien gobernu sendoa osatzeko asmoa aipatu zuten, alegia abertzale demokratikoez osatutako gobernu sendoa.

Beste behin gogoratu zuten zerrenda osatu aurretik EAri egindako eskaintza eta bere ezetza. Halaber, behin Udala




la osatu ondoren, EAk ba omen dauka EAJ-PNVrekin harremanetan jartzeko asmoa, eta jeltzaleek gobernoburu izanez gero, alderdi guztiekin biltzeko asmoa daukatela adierazi dute. Dena den Garbiñe Egibar hautagaiak adierazi zuenez, asmoak hutsean gera daitezke alkatetza eta gehiengo lortzen ez badute.



Santa Krutz jaiak, berreskuratutako festak

Hamar urte baino gehiago badira ospatzen ez zirela

Jai giroko egun polita antolatuko dute Elizmendin aurten-go Santa Krutzetako festak direla eta. Maiatzak hirua da eguna baina igandera arte atzeratu dute ospakizuna, jende guztiak parte har dezan. Santa Kruz ermita Elizmendin dago eta horixe dute jaiak ospatzeko arrazoia, nahiz eta azken urteetan ez duten ezertxo ere antolatu.



Santa Krutz ermita

antolatu dute, 2.500 pezetan truk herritarrek zerbitzatuko duten bazkari paregabea alegia. Ondoren, trikitixa soinuaz dantzatzeko eta abesteko aukera izango da eta gogoratu sagardoa txiritik edan ahal izango dela egunean zehar.

Festak berreskuratu nahi


Aspaldi batean elizmenditarren jaiak izaten ziren Santa Krutzak, bertakoentzat soilik. Aurten jaiak ordea herri osoarentzat antolatu dituzte, asteasuar guztiak baitute parte hartzeko aukera jaietako ekitaldi ezberdinetan. Bertako auzotarren burutazioa izan zen jai hauek berreskuratzeko eta garai batetako ohiturei atxikitzeko. Beraz, elizmenditarrek denen eskura clauden festak izatea dute helburu nahiz eta beraiek antolatu.

Udalak ehun mila pezetako laguntza eman die auzotarrei ekitaldiak antolatzeko eta honela jai hauek ere herriko jaien kutsua hartzen ari dira, azkeneko urteetan alde batetara utzitako ospakizuna aurten berriro bultzatu nahi baita.

Beraz, jaieko gogoz zaudetenok badakizue nora joan dibertsio bila maiatzaren lehenengo igandean, Santa Krutz eguna festa giroan ibiltzeko egun zoragarria izango baita eguraldiak laguntzen baldin badu.

Elizmendiko frontoiak jai kutsua izango du maiatzaren zazpian, goizetik hasi eta iluntzera arte ekitaldi ezberdinak antolatu baitituzte bertakoek. Eguna ermitan egingo den mezarekin hasiko da, eta bertatik aterata hamaiketakoarekin jarraituko dute. Indarrak hartu ondoren pilota partiduei emango zaie ha-

siera, herriko pilotari edota pilotazale gazteen trebetasunak ikusteko aukera paregabea izanik. Herriko dantzariak ere beraien saioa eskainiko dute bazkariarekin hasi aurretik. Beraz, azpimarratzekoa da herritarren parte hartzea bultzatu nahi dela jai hauetan, herriko jai bat izatea lortu nahi baita. Bazkaria ere



ZUBI
AUTO ESKOLA

Ernio bidea, 2 - ☎ 69 06 93 - ZIZURKIL



Nagusia, 8 - Telf - Fax 69 12 30
BILLABONA

"25. URTEMUGA." PREZIO BEREZIAK

- FOTO - BIDEO erreportaiak. Ezteiak. Jaunartzeak. Bataioak.
- FAX zerbitzua.
- Foto enmarkozketa. Neurri standarrak edolan bereziak.



EAREN Udal hauteskundeetarako zerrenda

Billabona-Amasa

“Billabonak bakean bizitzea eduki behar du helburu”

Billabonako Udalean beste alderdi politikoekin elkarlanean jarraitzeko asmoa dauka EAk, herriak dituen proiektuak, Udaleko beste kideekin batera aurrera eramateko bideak jartzea duela helburu. Egun onarturik dauden proiektuen jarraipena eta aurrekontuen bideratzea dira, besteak beste, egin beharrekoak. Kiroldegia bezalako proiektu handietarako behar den dirua lortu eta beste beharretarako behar denaren arteko oreka da, hain zuzen ere, lortu nahi dutena.

Eusko Alkartasunak datorren maiatzaren 28an izango diren Udal hauteskundeetako hautagaien zerrenda aurkeztu zuen apirilaren 8an. J. Mikel Garmendia Madariaga da alkategaia. Berarekin batera hurrengo urteetarako dituzten asmo eta eginbehar nagusien berri eman zuten EAko kideek.

Horrez gain, garrantzitsua iruditzen zaie Billabonan bakea eta lasai bizitzeko beharrezkoak diren neurriak hartzea. Azken aldian Billabonan izan diren gertaeren aurrean, Kutxaren erreketak bezalakoak aipatuz, herritarren hausnarketa eta sakaketa eskatzen dutela adierazi dute:

“Billabonak, Euskal Herriko gainontzeko herriek bezalaxe, bakea beharrezkoa du eta indarkeria atzerapauso baino ez da. Bestalde, herritarren aurkako ekintzak dira eta ez dute justifikaziorik. Euskal Herriaren autodeterminazioa aldarrikatzen jarraituko dugu baina giza eskubideen errespetutik, ez odolaren eta sufrimenduaren bitartez”.

J. Mikel Garmendia Madariaga zerrendaburuaz gain honako hauek osatzen dute zerrenda: Manuel Iturriz Sorrondegi independentea, Iñaki San Sebastian Arratibel, Julian Arozena Garaikoetxea, Kontxi Aiastui Artola, Txomin Garmendia Galarza, Nagore Bravo Altuna, Manuel Usandizaga Mendizabal, Gururtze San Sebastian Arratibel, Jose Oiartzabal Gabilondo, Enrique Gamboa Ruiz, M. Angeles Lanzeta Aseginolaza eta Alejandro Legarra Zubeldia.



Eako hautagaiak

UBANE
EDARITEGIA - JATEKOA
 -Otarkekoak
 -Kartara jateko aukera
 Etxe Ondo, 6-7 - ☎ 69 34 42
BILLABONA


AUTOEN MEKANIKA OROKORRA
ZABALAGA TAILERRAK
 Ama Kandida Etorbidea. DENAC Poligonoa, 203. Pabeloia
 Telefonoa 30 01 69 ANDOAIN


ETXEOENTZAT
APARTEKO
OGIA!!
 Kale Nagusia, 19 - ☎ 69 17 11 - BILLABONA

Kultur asanblada baten beharrean

Talde ezberdinen arteko lan bateratua falta da

Talde ugari daude kultur arloa jorratzen dutenak eta ekimen ugari burutzen saiatzen direnak. Halere, ez dute izan dinamika onik azken aldi honetan eta are gutxiago guztiek batera lan egiteko orduan. «Maiatza saltsan» kultur ekitaldiaren ateetan, ez da ikusten ekimenak indar handia izango duenik aipaturiko lan bateratuaren ezagatik. Hori da behintzat Kostata gazte asanbladak deituriko azken kultur asanbladan esan zena.

ta, Bukalai, Danena, Sortzaile, P. Matano guraso elkartea eta Kultur Etxe-artaideak bildu ziren Aste Santua baihen, kultur asanbladaz eta honek gako ekimenezetaz eztabaidatzeko. Bilo taldeek positibotzat jo zuten asanbersortzea, taldeen arteko harremanak zeko eta azken finean, herrian kultura ereseko gaiak lantzeko. Izan ere, talde zak ez du landu behar bezala bere es, herrian dinamika gabezia nabarmenik eta hori da gaur egungo arazorik zitsuena azken asanbladaren ustetan; akoitzaren lan dinamika eza. Bestal- nbladak egitasmo zehatz batzuk edu- r ditu eta helburu jakin batzuk lortze- behar du, «Maiatza saltsan» eta antze- nenak bideratzeko. Orain talde bako- abaidatu beharko du asanbladaren izaera eta funtzionamendua, talde artean aurrerago egingo den kultur asanbladan erabakiko dena.



Argazki zahar- rren bilketa

Ekainean egingo den erakusketarako jaso nahi dira

Sortzaile kultur elkartearen ekimena da, herriko historia eta honen garapena azaltzeko. Maiatzak 22rako argazki guztiak bildu behar dituzte eta data honetarako herritarrei dauzkaten argazki zahar- rarak uzteko deia luzatu nahi diete. Kultur Etxean edo Iriarte Etxean utzi behar dira kartazal itxi batean, argaz- kiaren data 1975. urtea baino lehenagokoa izan behar du eta jabearen izena eta telefo- noa ipiniz.

Zizurkilgo historia jaso nahi da erakusteta horren bidez eta argazkiak biltzeaz gain aspal- diko kontuak bilduko dituzte, herriko jende edadetuaren bi- dez. Honela, argazkiak eta tes- tu zaharrak izango ditugu ikus- gai erakusketan. Herrian pasa- tako historiak eta bertako biz- tanleek bizitako pasadizuen be- rri eman nahi dute Sortzaile- koek. Kultur Etxearen laguntza jasoko du ekimenak erakuske- tarako leku bat utziz eta Udala- ri ere laguntza ekonomikoa es- katuko zaio ekimena aurrera eramanean ahal izateko. Edukin guztiak eskuarteaz izatean li- buruska bat egiteko asmoa dago, herriko historia bertan la- burbilduz. Baina lehenengo lana artxibategi bat egitea da, biltzen diren argazki eta testuak txukun- txukun gordetzeko. Be- raz, argazki zaharrik baduzue eramanean Iriarte Etxera edo Kul- tur Etxera lehenbailehen eta ko- pia bat ateratu ondoren itzuliko zaizue.

fotocolo
ERREBELATUA ORDU LAN

kontza, Jaunartze, e.a. en erreportaiak.
Lan Industrialak

Kodak
EXPRESS
SERVICIO DE CONTROL DE CALIDAD

Jose Ignacio Unanue
Juan Bta. Erro 1 - ☎ 59 43 32
20.140 ANDOAIN

Andoain

Irratizaleak: 10 urteko historia

Hiri-bandan bigarren kanalean aurki daitezke
Andoaingo irratizaleak

Ia hamar urte egin ditu Andoaingo irratizale elkarteak. Elkartea sortu aurretik jende ugari aritzen zen irrati zaletasuna. Beren etxeetan aritzen ziren batekin eta bestearekin irrati bitartez hartu-emanetan. Elkartea osatzea ordea, bestelako urratsa izan zen, alegia, herriko hainbat ekintzatan eta larrialditan laguntzeko helburua ezarri zioten taldeari. Gaur egun Udaleko babes zibileko partaide dira udaltzainekin, Gurutze Gorriarekin, mendizale taldearekin eta Erztantzarekin batera. Jose Luis Uzkiario, alias "Simero" elkarteeko lehendakariaren esanetan, besteekiko elkartasunak bultzatzen ditu lanean jarraitzea. Andoaingoa, Gipuzkoako irratizale elkartearen artean aintzindaria izan da. Lan handia egin dute orain artean, eta gaur egun ere asteburu gehientsuenetan lanpetuta egoten omen dira. Hala ere, etorkizuna ez dute oso argi ikusten. Udalaren dirulaguntza txikiak eta zuzendaritzako lanak hartzeko elkartekideen aldetik dauzkaten arazoak dira iluntasun horren arrazoirik nagusienak.

Orain dela hamar urte herrian jende ugari aritzen zen irrati uhinen bitartez inguruko zaletuekin komunikatzen. Berrogei kanal ezberdinetan aritzen ziren ordea, eta elkartu eta aurrerantzean irrati seinaleak hamaikagarren kanalaren bitartez igorriko zituztela erabaki zuten. Handik gutxira bururatu zitzaizen elkartea sortzea; norbera etxean bakarrik aritu beharrean,

elkartea sortu eta helburu soziala ematea erabaki zuten. Beste herri batzuetako elkarteetara jo zuten gaia ezagutzeko, eta urtebeteren buruan osatu zuten elkartea.

Gaur egun 68 bazkide ditu elkarteak. Guztiak ez dira andoaindarrak; inguruko herrietako irratizaleak ere bildu zaizkie, horietan taldeak egon arren, gainbeheran baitaude. Jose Luisek esan digunez inguru honetan



Errenderia, Donostiakoa eta Andoaingo baino ez dira normaltasunez lan egiten ari.

Asteburu ia guztietan daukate lanen bat

"Asteburu guztietan daukagu zerbait" esan digu Jose Luisek. Gaur egun ihauteriak, mendiko txirringa proba, ziklo-kross lasterketa eta Gipuzkoako bira zuzentzen laguntzen dute. Garai batean herri olinpiadetan ere hartzen zuten parte. Eta arestian hilda agertu den Maria Antonia Mendez De la Torre andoaindarra desagertu zenean laguntza eman zuten beste talde batzuekin batera. Hain zuzen ere, inguruko borda guztiak miatzeaz arduratu ziren. "Ihauterietan adibidez -dio Jose Luisek- gure lana desfilean zehar gertatzen ari diren gora-beheri buruz informatzea baino ez da, dena den, beti izaten dira ezusteak, eta gure eginbeharra ez izan arren, larrialdietan ere lagundu egiten dugu".



"Azeriaren harrapaketa"

“Azeriaren harrapaketa”

“Azeriaren harrapaketa” deritzona da ekintzetan nagusiena, ez Andoango irratizaleen artean bakarrik, talde guztien ekintzarik nagusiena izan ohi da. Balizko egoera bat asmatzen dute lehiaketa egiteko, larrialdi egoera bat hain zuzen ere. Larrialdian dagoenak seinale batzuk igortzen ditu, eta irratizaleek kotxearen laguntzaz seinalea non dagoen asmatu behar dute. Proba zailagoa izan dadin, seinaleak ez dira etengabe igortzen, 20 segunduko tartez baizik. Kotxeko antenaren bitartez lokalizatzen du batek seinalea irradi bantari begiratu, eta aldamenean joan ohi den lagunak mapa baten laguntzaz edo aldirietan begiratu, bideei erreparatzen die, seinalea nondik etor daitekeen asmatzeko. Andoaindarrek “azeriaren harrapaketa” gain, helburu bereko “txanpainaren edota pastelen harrapaketa” ere egiten dute.

Ikastaroak lehenengo aldiz

Martxoan eskaini zituen taldeak gaztetxoentzako ikastaroak. Baina uste baino harrera eskasagoa izan dute herrian, eta apenas hurbildu zaie inor. San Estebanen eta igande goizetan antolatu izana omen dira antolatzaileen esanetan horren arrakasta txikiaren arrazoia. Elkartekideen as-



San Estebanen ikastaroak



Gaztetxoei erakusten

moa tresneria erakustea, oinarrizko funtzionamendu teorikoa eta praktikoa irakastea, eta lehiaketaren bat antolatzea zen. Asmo horiek guztiak ordea, beste urte baterako atzeratu beharko dira.

Zaletasuna grina bihurtu ohi da

“Irratizale ofiziala” izateko lizentzia eduki behar da, eta alde aurretik azterketa bat gainditu. Maila ezberdinetako lizentziak daude. Mailarik altuena daukatenek munduko edozein punturekin harremanetan jartzeko aukera daukate. Orain artean *weak-talk*-ak erabiltzea galerazita baldin bazegoen ere, gaur egun lizentzia eskuratuz gero, badago erabiltzerik, eta hiri-bandan komunikatzerik.

Lizentziaduna izan ala ez, ezagututako guztiek daukate aparteko grina edo zaletasuna irratiz jarduteko, Jose Luisek dioenez, probatu arte ez omen dago ulertzerik. Irratiarena berez, bakardadean aritzeko zaletasuna omen da, asko eta asko dira, etxean emisora eduki eta jende ezezagunarekin harremanetan jarri eta lagunak egitera iristen direnak. Elkarre batean lan egitea berriz, oso bestelako gauza omen da. Beti omen daude lanpetuta, era guztietako ekintzen antolaketan laguntzeko deitzen diete.

Hiri-bandako bigarren kanalean aurki daitezke Andoango irratizaleak. Kanal horren bitartez jartzen dira andoaindarrak harremanetan. Guztiek daukate ize-norderen bat -irratizaleen artean Jose Luis Uzkiario izena bera baino askoz ezagunagoa omen da “Simero” izenor-

dea-, eta beren arautegiaren arabera debekatuta daukate erlijioaz edo politikaz hitz egitea, edota hitz itsusiak erabiltzea.

Antena, energia elikagailua eta emisora dira irratizaleak behar dituen oinarrizko tresnak. Horrezaz gain kotxea ere guztiz ezinbestekoa ez bada ere, irratizale gehienek daukate emisora kotxean jarrita. Badaude beste batzuk berriz, irradi mugikorra motxilan hartu eta bideetan barrena zoko ezkutuetaraino barneratzen direnak.

Debekatuta daukate politikaz edo erlijioaz hitz egitea

Irratizale taldea egun hauetan ari da Doktor Huizi kalean daukan lokala egokitzen. Dena den, Jose Luisek ez dauka oso argi elkartearen etorkizuna zer nolakoa izango den. Alde batetik, Udalaren dirulaguntzak gero eta txikiagoak direla adierazi digu, eta bestetik, elkartekideek ez omen daukate zuzendaritza lanetan aritzeko gogo handirik. Dena dela, Andoango irratizale elkarteak lanean jarraitzen du, herriko ohizko ekitaldietako antolaketa lanetan eta larrialdietan laguntza eskaintzen. Beren lana aurrerantzean ere Udalak nahiz herriak kontuan hartuko duten itxaropena badaukate, hala ere.

Bretxa azokarako joan-etorrian

Maria Jexux Irazusta: "Baserritarren azokek ez daukate etorkizunik"

Maria Jexux Irazustak 40 urte daramatza Donostiako Bretxa azokara joan-etorria asteazkenero eta larunbatero eginez uda nahiz neguan. Garai batean Agote autobusa hartzeko astoa eta gurdia hartuta abiatzen zen Ondartzabitartetik. Baina burdinezko gurpildun gurdian ibiltzea galerazi zuten eta kotxea gidatzen ikasi behar izan zuen 40 urte zituela. Geroztik Donostiako kaleetan kotxez ibiltzeko batere arazorik ez dauka Maria Jexuxek, txoko guztiak ezagutzeaz gain, udaltzainek ere ezagutzen baitute. Bi urteren buruan Bretxako azoka guztiz aldatuta egongo da, eta egungo baserritarrak Sarriegi enparantzan egongo dira. Ordurako erretiroa hartuta egotea espero du Maria Jexuxek.

Gaur egun Bretxa ondoan dagoen azoka habestua denda galeria modernoa bilakatuko da. Kanpoko azoka eraberritu egingo dute eta bertan egun barruan dauden dendarientzat egokitutako aretoa eraikiko dute. Eta baserritarrak Sarriegi enparantzara joan beharko dute. Maxuxen ustez donostiarrak berdin-berdin ohituko dira hara ere joaten.

Gauzak beraz, asteasuarra azokara joaten hasi zenetik asko aldatu dira. dena den, aldaketarik nagusiena bertaraten den erosle kopurua da: "Garai batean eramane ahala saltzen zen, hamabietarako etxerako itzulia egiten genuen; gaur egun berriz oso jende gutxi dabil". Arrazoiaz galdetu diogu, eta bere ustez egungo supermerkatu handiak dira aldaketaren erantzule: "Denetik egoten da han, garaikoak eta garaikoak ez diren barazkiak, oso prezio onean, eta onak gainera. Kanpotik ekarritakoak, ziur aski" erantzun digu. Maxux bera Pasaitik Bretxara erosketak egitera joaten ziren arrantzaleei 200 oitlasko baino gehiago salduta dago. Aste Santuan berriz, urtero berdin gertatzen omen da: "Oporretarako gordetzen du jendeak dirua eta beherakada handia nabaritzen da", esan digu, "bi astetan esnerik ekarri gabe egon naiz ni, banekien eta, ez nuela salduko". Esandako guztiarengatik uste du Maxuxek azokak egun batean, epe motzean, desagertu egongo direla, etorkizunik ez dutela.

Esnea eta barazkiak

9.30ak inguruan iristen da Maxux asteazkenero eta larunbatero Bretxara, bezperan bildu eta garbitutako azelgak, azak, porruak, letxugak eta beste barazki asko atorrean eramanda. 80 litro esne ere eramaten ditu botila eta marmitetan prestatuta. Asteazkenetan enkargatutakoa baino ez du eramaten. Larunbatean berriz, ahal duen guztia. Alaba azokan gelditzen da, eta bera kotxea hartuta, Amara aldera joaten da esnea banatzera. Urtean egindako bezeroak ditu Maxuxek. Garai batean Parte Zaharrean saltzen zuen asko, baina Amara aldea berritu zutenetik bezero gehienak han dauzka.

Azokan saldu eta Amaran banatu

Maxuxek Donostiako bazter guztiak ezagutzen ditu. Batetik bestera esnea banatzen ibili aurretik, oso gazte, abokatu baten etxean neskame zegoela, berari tokatu zitzaion Donostia guztian eskutitzak banatzea. Horrela ezagutu du hiri osoa "Nik ez daukat Donostian ibiltzeko kuidadorik; Tolosan ibiltzeak beldur gehiago ematen dit". Ondo gogoan dauka kotxea har-




Ondartzabitarteko atarian

tuta Asteasutik abiatu zen lehenengo aldia, alegia errepidean lehenengo muturrekoa hartu zuen lehenengo eguna: Billabonako bidegurutzean ziztu bizian zihuan holandar batek txikitu zion kotxearen aurrealdea. Arin gairditu zuen Maxuxek ordea beldurra, eta geroztik arazorik gabe egiten du Donostiako joan-etorria.

Azokako saltzaileek ez dute opor sasoirik. Uda joan, negua etorri, hotz galantekin edota eguzki berotan hantxe egon behar izaten dute. Santo Tomas egunean besterik ez du Maxuxek jai hartzen. Azoka bera baino gehiago, baratza du Maxuxek oso gogoko, eta atari aurreko bere baratzak ezagun du eskaintzen dion arreta. Bertan ikusi ditugu azak, azalgak, porruak, toma-teak, eta baita lehenengo marrubiak ere. Supermerkatuetan denetik omen dago, hala ere Maxuxek badaki, jendeak estimatzen dituela bere barazki freskoak.

Gizon-emakume hegalariaiak

Parapentean hegan egitearen zentzazioa handiagoa da



Parapentea

Gizakiak aspaldi amestu zuen txoriek bezala hegan egitea. Bere desioak airea zeharkatzeko makinak, hegazkinak alegia, asmatuz burutu zuen hein handian. Oso denbora motzean bide luzeak egiteko aukera eman zioten untzi horiek gizakiari, garraibide modernoenen artean estimatuenak bilakatuz, hala ere horrek, antza, ez zuen bere hegan egiteko nahia guztiz asetu, eta gizakiak txoriei begira jarraitu zuen, beren hegaldiak ezagutuz, noizbait imitatzen iritsiko zelakoan. Parapenteak, eta "ala deltak" batez ere, hutsune hori betetzera etorri ziren. Ramon Izagirre asteasuarrak amets berbera izan zuen txikitik, eta 1986ko ekainaren 28an bete zuen ametsa lehenengo aldiz ala deltan hegan eginez. Ramonek ondo gogoan dauka data hori. Egun ahaztezina izan omen zen. Gaur egun hegan egiteaz gain, erakutsi ere egiten du.

Uda aldean Nafarroako Esa aldean egiten du hegan ala deltan eguraldi ona egiten duenean. Eguraldi kaskarra egiten duenean parapentea erabiltzen du. Inguruko lekuen artean Arrona, Irun, Orio, Zarautz eta Zelatun bera dira zaletuek gehien estimatzen dituztenak.

"Ala deltak, parapentearen aldean hegan egitearen zentzazio handiagoa eragiten du" dio Ramonek, eta bien arteko aldea azaldu digu: "Parapentea kotxe batekin pareka daiteke, hau

da, balazten funtzioa egiten duten mandu batzuetara lotuta dauden soka batzuen bitartez maneiatzen da untzia: mandu batek alde bat balaztatzen du, eta bestea aldea aurreratu egiten da orduan. Azken finean, untziari agindu batzuk ematen zaizkio eta berak bete egiten ditu". Ala delta txirringa batekin pareka daiteke, ordea: gorputzaren pisua nora, untzia hara. Bi sistemak daude hegaztien hegadetan oinarrituta, baina txori guztiek ere ez dute berdin hegan egiten. Ala deltak naturaren baliabideak


aprobetxatzen ditu, aire korranteak, aire hotzak, beroak. Horregatik bilakatzen da interesgarri naturaren legeak ezagutzea, eta beraietara egokitzea. Parapentea sistema motorizatu da ala deltaren aldean, eta natura aprobetxatu baino gehiago, menderatu egin nahi du.

"Inoiz izango ez duen askatasuna bilatzen du gizakiak"

Inoiz izango ez duen askatasun zentzazioa bilatzen du Ramonek hegan eginez. Nonbait, askatasuna lurrean baino errazago, airean aurkitu izango zuela pentsatu izan du beti gizakiak. "Oinak lur gainean edukita, edota airean egonda, pentsamoldea bera aldatu egiten dela kontatu digu Ramonek. Saiakera arriskutsua ez ote den galdetu diogu. Bere ustez beste edozein kiroletan bezain besteko arriskua dago kirol hauek egiten: "Norberak bilatzen du arriskua". Arriskua, dena den, gaur egun oso modan dauden abenturazko kirolen ezaugarrietako bat dela esango luke aditua ez den edonork. *Puenting, rafting, snowboard* eta ingeles jatorriko hainbat eta hainbat kirolari buruz ari gara hitz egiten. Guztietan bilatzen omen da, Ramonen esanetan, naturarekin harreman zuzena.

Bi eratako hegalariaiak

Bi eratako hegalariaiak daude: batzuek mendiak igotzeari ematen diote lehentasuna, hau da, gailurrera igotzen dira eta ondoren, eta eguraldia aldeko badute, hegan jaisten dute egingadako bidea. Beste batzuei berriz, Ramoni esate baterako, hegan egitea baino ez zaie interesatzen. Aireratu be-



Ala delta

Zelatunen debekatuta dago hegan egitea

Gainera, eta Ramonek dioenez, beraiek ere kirolari zabalkunde handia emateaz ez dira asko arduratu, eta erakundeek ere ez dute asko laguntzen: "Inongo Udalarari ez zaio burutzen futbol zelaia egiten diren bezala, ala delta edota parapentea praktikatzeko lur sail batzuk, egokitzeta, edota baserritarrekin behizat akordioaren batzuetara iristea. Izan ere, Ramon bera ikusita omen dago hegalariren bat sororen batean lurreratzen eta jabeei tutik esan gabe bertatik urruntzen. Dena den, horrelakoak ez omen dira sarri gertatzen, istripuetarako aseguruak dituztela egiten baitute kirolariek hegan. Dena den, aipatzekoa da Errezilgo Udalak esate baterako, Zelatunetik behera hegan egitea orain dela gutxi debekatu egin duela. Hegalariren batek untzia soinean zeramala lurreratzeko orduan zelaian bazkatzen zeuden behi batzuk ikaratu egin omen zituen, arrapaladan hasi omen ziren abereak, ihesaldian behaztopo egin, eta akabo behiak.

har duten tokira ahalik eta gehien hurbiltzen dira kotxez, eta ondoren kotxetik gertuen lurreratzen saiatzen dira.

"Airean jostatzea daukat gogoko"

Parapente geldo batek 35 kilometro orduko abiada har dezake batez besteko; ala delta 100era ere iritsi omen daiteke. Minutu bat behar da gutxi gorabehera 100 metroko jaitsiera egiteko. Dena den, abiadura bera baino erakargarriago, airean jostatzea

omen da. Dena den, gaur egun lehiaketetan abiadurari eta denborari ematen zaio beste ezeri baino garrantzi handiagoa.

Gutxiengoarentzat

1986. urte inguruan hasi ziren ala delta nahiz parapentea Espainian ezagutzen. Hala ere oraindik ere gutxiengo baina ez da zaletu. Jakina da, kirolen artean garestiena ez bada ere, merkeenetakoa ere ez dela. Eta bestalde, kirol hauek egiteko ezagarririk behar ez bada ere, eta, diotenez, arriskua ere horrenbestekoa ez izan arren, jendea ez da oraindik asko animatu.



BORDA JATETXEA

A N D O A I N

SANTA KRUTZ FESTA ZORIONTSUAK
OFA DIZKIZUE

JANTZIK
B O U T I Q U E

UDABERRI ETA UDARAKO MODA
PREZIO OBERENEAN

KALE NAGUSIA, 45 ☎ 59 28 28 ANDOAIN

EMBUTIDOS ORMAKI URDATEGIA

TXERRIKIEN BANATZAILE ETA EKOIZLEA

ENPRESEN ZENTRUA
Ama Kandida z/g - 307. Moduloa - ☎ 592923
ANDOAIN

MIRARI
ILEAPAINDEGIA

ELIZONDO PLAZA, 2
☎ 590162 ANDOAIN


ALFARO
J A T E T X E A

EGUNEROKO MENUA
Larramendi kalea z/g
☎ 59 40 27 ANDOAIN

Nor da pertso- naia ezkutua



Lehiaketan parte hartu nahi izanez gero bidal ezazue zuen erantzuna Andoaingo Doktor Huizi kaleko 15. zenbakira. Irabazleen artean zozketa egingo da eta irabazleak Andoaingo **ERNAITZA** liburudendak oparitutako "Denboraren gibelean" izeneko Mirentxu Purroyen filmea jasoko du.



LIBURUDENDA
ERNAITZA
PAPERDENDA

Opari, libururu eta bideo egokienak aurkituko dituzu.

ZUMEA KALEA, 2 ☎ 59 24 59 ANDOAIN

SUKALDE TXOKOAN



Angel Lopetegi
Txoko erretegia
Andoain

PIPER FRIJITUAK PIPERREKIN

Lau pertsonentzako osagaiak:

- 150 zl oliba olio
- Lau baratxuri ale
- Irina
- Kilo bat makailo bizkar gazatua eta xukatua
- 8 piper berde
- Piquillo-ko 4 piper gorri
- Gatz pixka bat
- Perrexil pixka bat

- 1- Oliba ipini zartagina batean baratxuriekin batera. Behin baratxuriak ongi beratu ondoren, irinetan jarritako dato forman moztutako makailoa gehitu.
- 2- Bi minututan frijitu ondoren, azpikoz gora jarri, eta piper berdeak jarri. Zukuà atera arte frijitzen utzi.
- 3- Aldez aurretik beratutako ontzi batean jarri makailo xukatua. Piperrek frijitzen jarraitu behar dute, eta horiei piper gorriak tiratan moztuta gehitu.
- 4- Ertzak frijitzen hasiak daudela ikusitakoan, ontzitik atera eta makailo datoen gainean jarri. Gatz pittin bat eta perrexil pixka bat bota piperrei, eta baita bi koilakada olio ere gainera bustitzeko.

AURRERA TABERNA

Girorik ederrena gazteriarentzat!!

ZIZURKIL

“Astakeria da arazo sozialak genetikoak direla esatea”

Carmen Manzano EHUKo ikerleak euskaldunen azterketa antropologikoa egiten dihardu

EGUNKARIA: Cavalli Sforza ikerlari ospetsuaren “Giza Geneen Historia eta Geografia” azterketak itxura batean bertan behera bota du beltzen eta zurien adimen maila desberdina dela eta desberdintasun horren zergatiak genetikan egon daitezkeela planteatzen zuen tesia...

MANZANO: Arraza kontzeptu hori antropologian duela nabikotxo deuseztatu zen. Arzalluzek esan zuenean euskaldunen odol taldea O negatiboa dela, horrek ez du esan nahi euskaldun ba-

tek O negatiboa duenik, batzirik eta euskal populazioaren O eta Rh negatiboaren frekuentzia altuagoa dela gainerako populazioetan baino.

E: Hala ere, badirudi tesi arrazistak indartzen ari direla.

M: Bai, eta hor dugu adibidez soziobiologia. Arazo sozialak biologia edo genetikan oinarritu nahi dituen joera hori, alegia. Soziobiologiak daukan arriskua da oinarri genetikoak kulturalak izan daitezkeen ezaugarri askotan jartzen dituela, eta gainera,

normalean aztertzen dituen ezaugarriak gizarte desorekak sortarazten dituztenak dira: alegia, beltzak eta zuriak, homosexualak eta heterosexuak, emakumeak eta ez dakit zer...

“Besteak baino isolatuago egon gara”

E: Cavalli Sforzaren geneen mapan gizakia Afrikatik datorrela berrestu da.

M: Batzuek diote Afrikan sortu zela, aldez, gizaki modernoak bainbat gutxitan sortu zela uste dute, beste batzuek bai Afrikan bai Asian.

E: Era berean, euskaldunak Cro-Magnonen oinordeko zuzenak omen gara...

M: Hori ez da horrela. Duela 10.000 urte gutxi gorabehera ia Europa osoa izotzez estalita zegoen. Ordura artekoak populazio txikiak ziren, gebien-gebienak kostaldetan bilduak, hor klima bobea zelako. Duela 10.000 urte, klima bobetzen hasten da eta Cavalli Sforzak esaten duenez Anatolia aldean Neolitikoa abiatzen da, horrek dakarren guztiarekin. Hor mugimendu demografiko handia daigo eta garai horretan Europa osoa nabastu egiten da. Hala ere, zenbait populazio isolatuta gertatzen da, eta horien artean euskaldunak gaude.

Martin Ugalde, euskal kulturaren eta abertzaletasunaren aita-pontekoa.

“Denok gara, askotan bestela uste badugu ere, Sabino Aranaren zordun”

ARGIA: Nola ospatuko duzu alderdi zaharraren ehungarren urteurrena?

M. UGALDE: Sabino Aranaz gogoratu naiz, eta niri bidea egin zidaten aitona eta aita ikusiko ditut berarekin, eta joandako 50 aberi egunik gehienak sakabanatuak etorriko zaizkit gogora. Andoainen, Bilbokoa gerratean, atzerikoak Caracasen, Donibanen, Hondarribian... Meza entzungo dut, eta hainbeste urte neketsu pasatu eta Aberri Eguna oraindik batasunik gabeko tristuran pasatu beharreko minetan.

Zatituta gaude gutxi garen abertzaleak. Baina denok gara, askotan bestela uste badugu ere, Sabino Aranaren zordun, bere ametsetatik gatoz. Batzuk ausartago, ezkererago, besteak lehengo praktikei lotuago, baina denok gatoz iturri beretik eta independentzira goaz. Ez dugu honezkero gure adinekoek abertzaletasuna bakean sentitzerik izango. Gure ondorengoek agian, ziur asko!

ARGIA 995-IV-9, 1.525. zka.

Egunkaria apirilak 18.

Argitarapen honen edizioko laguntzaile:

En la edición de esta publicación colabora:



kutxa fundazioa
fundación kutxa

- gipuzkoa donostia kutxaren
- gizarte-ekintza
- obra social
- de la caja gipuzkoa san sebastián

Agenda

IKUSENTZUNEZKOAK

BILLABONA

Maiatzak 11: Nekane Intxaustik aurkeztutako "Secretos de glaciares". 20.00etan Gurea zinema aretoan.

ZIZURKIL

Maiatzak 4: Santiago bideari buruzko "Ultreya" saioa 20.00etan Kultur Etxean mendizale eta ibiltariei zuzenduta.

Maiatzak 10: Felipe Uriarteren hitzaldia eta Alaskari buruzko diapositiba emanaldia 20.00etan Kultur Etxean.

HITZALDIAK

ADUNA

Maiatzak 4: Jakoba Errekondok barazki, fruitu arbola eta lorategiei buruz hitz egingo du 19.00etan herriko ikastetxean.

IBILALDIAK

ZIZURKIL

Maiatzak 7: Andatza Eguna. Mendi irteera eta egun pasa.

IKASTAROAK

ZIZURKIL

Sukaldaritza ikastaroa Urkamendi elkartearen.

MUSIKA

ZIZURKIL

Maiatzak 5: "Zizurkilen eza ez eta festa" musika saioa tabernan Xabier Montoiarekin eta Morau bere taldearekin.

BESTE

BILLABONA

Maiatzak 12: Gipuzkoako Bertsolari Txapelketa 95. Lehen fasea. Mikel Aranburu, Jose Angel Arrotanandia, Lander Diez de Guereñu, Imanol Epelde, Maialen Lujanbio, Iñigo Manzisidor, Juanito Mitxelena eta Xabier Narbarte. 22.30etan Gurea zinema aretoan.

ZIZURKIL

Herri Urratsera joateko autobusak antolatuta dituzte.

ZINEMA

GUREA ZINEMA BILLABONA

"*Leyendas de pasión*"
"Cadena perpetua"
"Causa justa"

SANTA KRUTZ JAIK ANDOAINEN

APIRILAK 28:

19.30: Pregoia Olajauna etxean.
20.00: **Sardina jana** alhondigan.
22.30: **Zumeatarren danborrada.**
23.00: Dantzaldia IRATXO taldearekin.

APIRILAK 29:

16.00: **Txirindulari lasterketa.** Gipuzkoako txapelketa.
20.30: Inttutui abesbatzaren emanaldia Santa Krutz elizan.
22.30: **Santa Krutz elkartearen danborrada.**
23.00: Dantzaldia ELURTE taldearekin.

APIRILAK 30:

08.00: Andoaingo mugen arteko ibilaldia txirringaz.
12.30: **Bertsolari jaialdia:** A.M Peñagarikano, I. Murua, A. Mendiluze.
16.00: **Leizaran ibaiaren III jaitsiera.**
16.00: Artesauen erakusketa.
18.00: Sagardo lehiaketa.
23.00: Dantzaldia DRINDOTS taldearekin.

MAIATZAK 1:


11.00: **XVII. kross herrikoia.** Ignazio Iburguren memoriale.
18.00: **Amnistiaren Aldeko Batzordearen danborrada.**
19.00: Dantzaldia IZOTZ taldearekin.

MAIATZAK 2:

14.00: Bazkari herrikoia Bckoplazan.
21.00: Koadrilen afaria espigoian.
22.30: **Rock kontzertua: BAP eta BRANKAN.**

MAIATZAK 3:

16.30: URKI dantza taldearen emankizuna.
18.00: **Zinta lasterketa belozipedoekin.**
19.00: **Trialsin erakustaldia.** Mikel Iñorbe, munduko txapeldunordea.
21.00: Trikitilariak.



SANTA KRUTZ JAI ZORIONTSUAK OPA DIZKIZUE...

Zabala

Ordulari eta bitxiak



Kale Nagusia, 14 - ☎ 59 37 45 - ANDOAIN
Gudari enparantza - ☎ 33 23 41 - HERNANI

TRANBURU

agentzia

Aseguruak - Aholkularitza

PROFESIONALITASUNA NAGUSI

Kaleberria, 26
behea ☎ 59 08 14
ANDOAIN

winterthur



LEITZ

JAI ZORIONTSUAK
OPA DIZKIZUE

Ankoras, 4 • Tel. 30 04 69
20140 ANDOAIN - GIPUZKOA

Joxe Ramon

Taberna

PINTXO EDERRAK !!

KALE NAGUSIA, 16 - ANDOAIN

GOIHERRI

T A B E R N A

Kale berria, 7 - 3. ANDOAIN
☎ Partikularra, 590805 - ☎ Taberna, 594044

OTARTEKOAK ETA
PLATER KOMBINATUAK

TAXI

24 orduak


908-676004

GARBI

DROGERIA - LURRINDENDA

Ondo pasa jaiak

TELEFONOAK:
DENDA: 59 21 57
ETXEKOAK: 59 07 88 - 59 12 23
KALE NAGUSIA 18 - ANDOAIN



ALOTZ

IZOZKIAK

KALE BERRIA, 9 - Tel 59 07 06 ANDOAIN

BAR DANENA

ONDO PASA
SANTA KRUTZAK

ZUMEA . 26 - TELEF. 591202 ANDOAIN

SAN CRISTOBAL

t a b e r n a

MUS TXAPELKETA
LARUNBATERO

Ancoras kalea, 6 ☎ 592902 ANDOAIN



Kale Nagusia, 12 ☎ 59 18 63 ANDOAIN


LIBURUA

Gerra Zibila andoaindarren begietatik.

DAGOENeko SALGAI

*Andoaingo liburudendetan
eros ezazu:*


*DELGADO, ERNAITZA,
IKAS - JOLAS, INAZIO,
MINICOST, edo STOP.*



2.000 pta.

ERNE BAZKIDEAK: BAZKUNEAN BERTAN EROS DEZAKEZUE

ORIXE



**BATXILERGO
INSTITUTUA**

TOLOSA

**ESKOLA-GRADUATUA
LORTU
DUTENENTZAKO
BIDERIK EGOKIENA**

**UNIBERSITATERAKO
BIDERIK ZUZENENA**

*Aurretiko matrikula: Maiatzaren 4etik-18ra
Bulego-orduak: 8etatik-14.30era bitartean*

Telefona.: 65 13 87 - Faxa.: 65 13 40